

PURUA, BURUA.—Adiskide Zatarain-en gaizki ulertze bati oharra egin nahi diot. Igazko urtean Bilboko Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca dalakoak argitara zuen Azkue-ren *Cancionero popular vasco*-ren bigarren tomoak «Notas al cancionero» izenez ekarren eraskinean, beste zenbait oharren artean, E-32 horrialdean, neri zuzenketa eginez, eibartarron «zarraren puruan» eta «eññaren puruan», barbarismoak direla zion; hau da, erderakadak: «de puro viejo» eta «en puro hacer». Ditekeana, zeren nik hori ez bait dut ukatu, ez aipatu. Hau da, ez dut inoiz esan erderakadak ez direnik, baizik, giputxen «zarraren buruz» eta «egiññaren buruan»-en kidekoak direla baino. Eta hau zeharo beste gauza bat da. Gainerako iritzia ontzat hartzen dut. Gure «urtien puruan»-etik ez ote gipuzkoarren «urteen buruan»? Ez gainera Eibarren bakarrik, baizik bizkaitarrok (mintzairaz bizkaitarrak geranok), «puruan» erabiltzen dugu gipuzkoarrak beti «buruan» erabiltzen duten kasu berean.

Argi gelditu bedi: ez duk inoiz esan hori «barbarismo» eztenik. Beharbada hala izanen da. Hala baldin bada, gipuzkoarren «buruan» hori bera noski.

J. SAN MARTIN.